

## FORU ZERGEN KODEAREN WEB GUNEA




“Foru-Zergen Kode”ari eskainitako web gunea, aldakorra den errealitate sozio-ekonomiko batean sortzen diren egoera berrietara behin eta berriro egokitzearen beharraren ondorio gisa jaio da, baina baita gai honi buruz sortzen den doktrina eta jurisprudentzia dela eta. Sareen sareari esker, Ekonomilarien Euskal Elkargoaren Zerga-Aholkulari eta Ekonomilarien Erregistroak (ZAEE) eta Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoak (ZKO) batera eginiko tresnaren bidez, Euskadiko zerga-sistemaren ezaguera unibertsal izatea lortuko da, baita sistema berak sortarazten dituen arauak, era orokor, zabal eta eguneratuan ezagutzera ematea ere.

*Foru Zerga Kodea* internet bidez hedatzearekin, [www.euskadi.net/sistematributario](http://www.euskadi.net/sistematributario) gunean hain zuzen ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-zerga araudia modu sistematizatu eta praktikoan, euskarri bakar batean biltzea bilatzen da.

Beraz, helburu nagusia, gizartearen talde zabal batentzat lan-tresna baliagarria izatea da, bai zergadun, bai Administrazio edota zerga-aholkulari eta ekonomilariarentzat ere. Honela, web gunearen sorrerak adituek trebakuntza eta informazio-iturri tresna gisa erabili ahal izateari erantzuten dio, baita euskal zerga-sistema hedatzeko eta Euskadiko zerga-harmonizazio maila neurtzeko tresna gisa ere.

Ekonomilarien Euskal Elkargoaren ZAEEn *Foru Zerga Kodea* hiru urte darama Hiru Lurralde Historikoen zerga-testu eguneratuak eta konparatuak laburbiltzen. Kodearen aurkezpenean, zergaren Arauaren artikulua bakoitza, eta honekin lotura zuzena duen Araudiaren artikulua edo artikulua zehazten dira, eta ondoren, araudia garatzen eta osatzen dituen Aginduak eta gainontzeko xedapenen tartea jasotzen da, non letra eta kolore ezberdinak erabiliz xedapenen maila ezberdinak, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurraldeetako testuen edukien arteko berezitasunak nabarmentzen diren. Kodean, hurrengo gaiari dagozkien lege-testuak agertzen dira:

- Kontzertu Ekonomikoa
- Zergei buruzko Foru Arau Orokorra
- Pertsona Fisikoen errentaren gaineko Zerga
- Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga
- Ondarearen gaineko Zerga
- Sozietateen errenten gaineko Zerga
- Oinordetza eta dohaintzen gaineko Zerga
- Balio Erantsiaren Gaineko Zerga
- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko Zerga



Interneteko WEB gune honi esker PDF formatuan agertzen diren fitxategien informazioak kontsultatu ahal izango dira, lau aukeren emaitzak emango dituen konbinazio ezberdinak eginez:

- ❖ *Araudia/Zerga*
- ❖ *Lurraldeak*: Araba edo/eta Bizkaia edo/eta Gipuzkoa
- ❖ *Mailak*: Araua eta/edo Dekretua eta/edo Agindua
- ❖ *Aldia*: kontsultatu nahi denaren ekitaldia aukeratu

Azalduko dituen edukiak, logikoa denez, kaleratuta dagoen euskarri tradizionalak jasotzen duena islatzen du. Letra eta kolore ezberdinak erabiliz lurralde bakoitzaren testuen berezitasunak azpimarratzen ditu,

aipatutako argitalpenak jasotzen duen ohar metodologikoaren azalpenen arabera.

#### Web gunean erabilgarri dauden aukerak

- ⇒ Zerga bakoitzaren indize artikulatua
- ⇒ Bilaketa testuaren arabera
- ⇒ Xedapenen indize kronologikoa
- ⇒ Lurralde historiko bakar batekin lan egitea
- ⇒ Informazioaren maila jakin batekin lan egitea
- ⇒ Preskribatu gabeko aurreko urteetako zerga-araudia erabiltzeko aukera

Tresna informatiko hau sortu aurretik, Ekonomilarien Euskal Elkargoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren arteko hitzarmen sinadura egin zen. Honen ondorioz, Elkargoak bere *Foru-Zerga Kodearen* ekarpena egiten du Web gunearen bidez zabaldua izan dadin, eta Hiru Lurralde Historikoen zerga araudi bateratua eguneratzearen konpromisoa hartzen du. Administrazioak berriz, tresna hau Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoaren eskura jarriko du.